



Oinarrizko baliabideak

Eco Slippers-en helburuak lortzeko erabiliko dituen oinarrizko baliabideak hauek izango dira: makinak, gure produktuak ekoizteko; langileak, programazioak... kontrolatzeko. Ordenagailuak; hauekin gure webgunea kontrolatuta edukitzeko. Eta programak, hauek enpresaren kontu eta aurrekontuak kontrolatuta izateko. Baina, baliabide hauek lortzeko kapitala beharko dugu, beraz, leku hauetatik aterako dugu.

Mailegua

Lehenengo aukera banku bati kreditu bat eskatzea da. Gure negozio-idea bankuari azalduko diogu eta mailegu bat lortzen saiatuko gara, eta, horrela, enpresak berehala aurrera egin ahal izango du. Orduan, negozioa irekitzen dugunean, arian-arian eskuratuko ditugun irabaziekin, ordaindu beharreko dirua murrizten joango gara.

Dirulaguntza eta laguntza publikoak

Administrazio Publikoak ez ditu enpresa-proiektuak zuzenean finantziatzen, baina ekintzaileei hainbat dirulaguntza ematen dizkie negozioa finantziateko. Laguntza jaso ahal izateko, eskatutako laguntzaren arabera alda daitezkeen baldintza batzuk bete behar dira. Gehienak berrikuntza-proiektuetara bideratuta daude, gure enpresara, esaterako.

Inbertsorea

Inbertsorea gaur egun duten aberastasunaren gastuari edo kontsumoari uko egiten dioten pertsonak, proiektu edo enpresa batean jarritz, etorkizunean errentagarritasuna lortzeko.

Inbertsoreak espero dute ekintzaileak parte hartzen duen sektorearen berri izatea.

Inbertsoreak espero dute ekintzaileak parte hartzen duen sektorearen berri izatea.

Konpainiek akzio kopuru batean banatzen dute jabetza, saldu eta dirua lortzen dute trukean.



Kapitala

Kapitala esan nahi du erakunde ekonomiko batek dituen baliabide finantzario, fisiko eta giza baliabide guztien jatorria enpresetako exekutiboek eta akziodunek egiten dituzten ekarpenak direla; horren helburua da aurrerago irabaziak sendotu ahal izatea, enpresek egindako hasierako inbertsioen gainean. Laburbilduz, enpresa batek bere merkataritza-jardueraren bidez duen edo ekoizten duen diru-kopurua da.